


Isidro Garalde «Mamarru»rekin

«Herriaren erreibindikazioen gurdia nork darama hemen?»

Gari jaioberriz berde ageri dira Alemaniako mugan dagoen Delme herrixkako inguruak. Hotza eta bide bazterreko hotela. Beren pistolak nabarmen erakusten dituzten sei polizia egin digute harrera: izenak hartu, poltsetan erreparatu eta gure soinak miatu. Ixabel emazteak dioskunez, gela batean egoteko ere sekulako istiluak izan zituzten. Poliziak ditu Mamarruk atzetik beti, komuneko edo gelako atariraino. Zimur batzu gorabehera, oso gazte ikusten da. Gaztea, bizia eta sekula elkar hizketa bat egin gabea izateko oso zorrotza.



Isidro Garalde 'Mamarru' ondarrutarra Strasbourg-etik 150 kilometrotara dagoen Delme herriskan.


ARGIA.— Egunotan Gasteizko lehendakariak ontzat eman berria du euskal presoek sakabanaketa politika. Politika hori zeure soinean jasan duzunez, zerbait izango duzu esateko.

Isidro Garalde.— Une honetan oso latza da Azkoiti eta Txikiardiren egoera, nik jasan dudana baino anitzez latzagoa. Begira, lehengo ideologia humanistak kakatara joan dira, zerbait gelditzen bada argi eta garbi hori da. PSOEren mende dago erabat gaur PNV, eta PSOEek nahi duena egingen du. Horregatik ez nau harrizkeoa presoek sakabanaketa isolamendua ontzat ematea, Artzalluzek edo lehendakaritzan dagoen pailazo horrek.

Garai batean PNVk izango zuen bere ideologia humanista, gizakia handitzen duena. Baina gaur zer da primatzen duena? Zer da gizarte kontsumista honek lehenbiziko eskatzen duena? Boterea, interesak, aulkiak, jarlekuak. Eta hor dago gaur. PNV aipatzen dudanean aparatoaz ari naitzaizue, ez botoa ematen duenaz edo militante xumeaz. Hor ere, dena dela, hainbat kontraesan bada: non gelditzen da aparatoa eta non militante xumea? Hainbat galdera egin behar da hor.

A.— Espetxeetako informazio gehiago behar litzateke, informazio gutxi omen dago zuek hor bizi duzenaz...

I.G.— Batzuetan hobe bait da begiak itea. Bizi honetan zer aukeratu duzu? Gizarte hobe baten alde borroka egitea, eta hori da gizakiari bere handitasuna ematea, ala interesetara makurtzea? Hortxe dago lotuta dena. Sakabanaketarena ez da gaurkoa. Biolentziaren arazoari konponketa bat ekartzekotan, PNV ez zen euskal herri xumeari galdetzeraz, ea nondik eta nola konpon zitekeen bortxa, ez, alemanenga-



Kontrarioak eta etsaien artean bereizketa egiten bereizten duen pertsona dugu Isidro Garalde.

na joan zen galdezka ea nola egin zitekeen konponketa hori hotzez, ongi aztertutako teoria hotzak aplikatuz.

Estatu Frantsesean ezagutzen ditudan kasoak aipatuko nizkizueke, Azkoitirena adibidez, oso gertutik ikustea tokatu zait lagun horri egin diotena, eta ikaragarria da. Txiki diren isolamendua hor dago orain, hilabete eta hilabeteetan luzatua. Estatu Espainoleko espetxeetan gertatzen direnak hor daude, gauza bera da. Sakabaketa horrek, bakardade horrek, batzuk modu batean kolpatzen ditu, beste batzuk beste modu batean, baina denok hunkitzen gaitu.

**A.— Bakardadearen eraginak giza-
kia erotzeraino eraman dezake.**

I.G.— Bakardadeak dakarren zama ezin dizuet esplikatu, egia. Erotzeraino? Bada, begira, eskerrak bakardadearen barruan ere bakarrik aurkitzen ez garen. Hurbileneko ingurua daukagu lehenbizi, familia eta lagunak, eta Herria dago gero. Bestela ez bait dago gizakirik holako kondizioetan iraun dezakeenik.

A.— Herria ezin asko dastatu gartzelatik atera eta Metz ondoko basamortu berde honetara ekarri baldin bazaituzte.

I.G.— A, baina espetxetik irtetea zain neukan jendearen harrera izugarria izan

zen. Gutxi gora behera kalkulaten dituzu, barruan zaudenean, handik ateratakoan aurki ditzakezun posibilitate ezberdinak: besteren atzaparretan zaude eta zure kalkuluetan sartzen dira orain bezalako asignazioa eta abar. Eta abar! Baina inola ezin kalkulatu atarian nere Herria aurkitzea. Hura esplikatzeko ez dut hitzik.

Geroztik hasten zara pentsatzen zer zen hura, eta ohartzen zara han hiru belaunaldi zeudela, eta horrek indartzen zaitu. Beste ehun urtetarako morala sartu didate. Hiru belaunaldi zeuden han: gu baino zaharragoak, haiekin beti duzu lotura bat, aspalditik ezagutzen gara eta bada hor sentibilizazio bat; gero, zer esanik ez, gure belaunaldia; eta hirugarrenik gazteagoak, gazteak. Hori kristorena da, guk egindako urratsak ez direla alferrikakoak izan.

“O nartu beharra dago dinamika guk eramaten dugula, Nazio Askapenerako Mugimenduak. Gurdia guk daramagu, eta beste askok ere gurdi horretara salto egiten dute”

A.— Bost urte eman duzu espetxean sartuta, eta tarte honetan hainbat gauza gertatu da Euskal Herrian. Inolako informaziorik gabe bost urteok zulo beltz batean pasa bazenitu, igoal gauzak ezagutu ere ez zenituzke egingo.

I.G.— Neurri batean desfase batean aurkitzen naiz, dudarik gabe, baina ohitu gara baldintza zailtan ere gure ingurunearen elikadura onartzen eta jaten. Ni bakarrik ez naiz ezer, nere ingurunean bai. Hori oso garbi daukat, kolektiboaren garrantzia.

Egunetik egunera, orain dela hamar urte-edo, kojuntura batetik bestera pasatzeko prozesu luze bat ikusten zen, nola zeterren ikusten zen. Orain ez, orain egun batetik bestera gertakizunak pilatzen dira. Onartu beharra dago dinamika guk eramaten dugula, Nazio Askapenerako Mugimenduak. Gurdia guk daramagu, eta beste askok ere gurdi horretara salto egiten dute, kondizionatuta bait daude.

Eman dezagun autodeterminazioarena. Kolpetik gertatu da, eta seguruenik kanpoan zegoen zenbaitek ikusiko zuen nola zeterren hori, baina gartzelan dagoenak nekezago. Hipotesietan mugitu behar duzu, ona ote da ala txarra, interesik ba al al dago, protagonismo arazo huts bat ez al da...? Hori da lehenengo flaxa. Gero bai, gero bilatzen duzu ingurunearen aberastasuna. Alde horretatik, bakarka egindako zure analisiak faltsuak izan daitezke, eta analisiak xuxenak izan arren ez zaude ziur, datu guztiak zure eskuetan ez dituzulako.

A.— Aljerreko elkar hizketak espetxetik ikusi dituzu. Nola juzgatzen dituzu gaur egunetik ikusita?

I.G.— Dudarik gabe, botere faktikoen presioa ikusi behar da; hainbat partidu zailantzan egon arren, bat agertu zen kontra eta agresibitate osoz, militarren partidua. Militarrak aurka ziren, edo militarren zati bat. Ez militarrek bakarrik, botere faktikoak ere bai. Beste aldetik, Ajuria-eneako alderdien presioa ere ikusi behar da, beren protagonismoa galtzeko arriskuaren beldurrez. Zeren eta galdera zen: zer izango da egun horren ostean? Horra beraz, kontra, aginte faktikoak eta titere kolaboratzaileak.

A.— Holako presioak baldin bazeuden, zein helbururekin eseri ziren sozialistak Aljerreko mahaian?

I.G.— Denbora irabaztea zen helburua. Herri bat dago hemen etsaiaren erasoari

“**O** hitu gara baldintza zailetan ere gure ingurunearen elikadura onartzen eta jaten. Ni bakarrik ez naiz ezer, nere ingurunean bai”

aurre egiten, eta horren aurrean denbora irabazi nahi zen. Prozesu bat dago, prozesu luzea, eta horretan zeinek eta datu gehien eduki hori da kaporala. Gero, prozesu hori bukatzean zer gertatuko den, horrek zenbait jenderi sekulako beldurra sortzen dio. Jakina, gure historia laburrean gauza luzea da, baina historia orokorrean epe txikiak dira. Beti izan dira alde bateko egoismoak, beste aldeko petenistak edo kintakolumnistak, beti izan dira gure inguruan,

gure gerra guztietan hola izan da. Historian begiratu eta beti aurkituko duzue botere errealekin, botere espainolekin, aliatu- ren bat Euskal Herrian.

Denbora irabaztea zen afera, ikusten dugu gure politika errepresiboa aurrera atera ahal izango dugula eta bitarte horretan irabazten ateratzen gara. Zer da irabazte hori? «Jauntxo» ustel batzuen asentatzea. Gauza ustelak sarritan sinpleak dira: lagun bat administrazioan sartu, halako inmie- ble...

A.— Alderantzikoa ere esan daiteke, Ajuria-Eneako hitzarmenari esker eseri zela ETA Aljerren, eta bere ahuldadearen seinalea dela esertze hori.

I.G.— Kitarrajoleak ugari daude, baina kitarra jotzeko jakin behar da batetik afinatzen eta bestetik treintaitresez jotzen ere bai. Horra beti protagonismoaren arazoa. Hitzarmena mana legez eskaintzen

duten horiek nola gelditu dira ETA mahai baten eseri denean, tregoa bat egin duenean?

A.— Aljeriakoa pasatu zen, eta joan den uda bukaeran bazirudien berriro ildo horretatik zerbait mogitzen hasi ote zitekeen edo. Josu Muguruzaren hilketa suertatu da tartean.

I.G.— Alde batetik egurra eskaintzen da eta bestetik arazoaren konponbidea elkar hizketaren bitartez, eta egurra eskaintzen dutenak bururaino joan dira. Badakite soluziobide bakarra mahaian esertzea dela, baina mahain aurrean eduki behar dutena ahalik eta ahulen edukitzen saiatzen dira behin eta berriro. Saio dramatiko eta makiabelikoak dira. Hor dago hainbat Cassinello eta jakin ezazue beren barruan non daukaten muga jarrita.


A.— Mahaian eseritzea bera baten- tzako garaipena gerta daiteke, baina mahaian eserita elkar hizketan ere irabaz edo gal daiteke.

I.G.— Hipotesien munduan sartzen gara bide horretatik. Baina galtzaile eta irabaz- leen topikoak alde batera utzi behar ditu- gu. Azken finean denok izango ginatke irabazle, hori bai, bakoitzak bere hilak be- reganatu, guk gure hilei nigar egingen die- gu eta haiek berenei. Mahai batetik atera- tako irtenbide batekin nork irabaziko lu- ke? Azken finean benetako demokraziak. Denok izanen gara neurri batean galtzaile eta neurri batean irabazle, eta topikoez fu- titzen naiz mahai batetik lortzen baldin ba- dugu benetan gure helburuak aurrera ate- ratzea.

A.— Zein etorkizun dauka Ipar Eus- kadira ihesi joan den errefuxiatu batek gaur egun frantsesen aldetik?

I.G.— Etorkizun latza, oso latza. Arazo pertsonalak daukazu alde batetik, eta agresibitate politikoak dakartzan ondorio guztiak bestetik: lanik ez, gordeta egon be- harra... Egurra ematen segituko dute, be- ren ondorio guztiekin.

Inongo defentsarik ez daukagu. Paperik ez daukagunez, lanik ezin dugu egin, eta gizarteak eskaintzen dituen abantailak ere ez dira guretzako. «Procedure d'urgence absolue»k prozedura guretzat ez dago ken- duta, horren aurrean inolako babesik ez daukagu, neurri administratiboa denez. Komeni zaienean, edozein momentutan, muga polizia espainolaren eskuetan utzi gaitzakete. Ezkutuan bizi eta edozein kon- trolelan harrapatzen duten errefuxiatuak



XABIER

«Badakite soluziobide bakarra mahaian esertzea dela, baina mahain aurrean eduki behar dutena ahalik eta ahulen edukitzen saiatzen dira behin eta berriro. Saio dramatiko eta makiabelikoak dira».



XABIER

«Hor dago hainbat Cassinello eta jakin ezazu beren barruan non daukaten muga jarrita».

inolako babesik ez dauka: espetxera bezala mugara eraman dezakete.

A.— Frantsesek oraindik zuen kontra eraso gogorragoak eman dezakete la dirudi, eta batzuetan aldiz egurra dosifikatzen ari direla, gerorako kartutxo batzuk gordez bezala.

I.G.— Noraino eman egurra, ordea? Ez dakit, nik behintzat horretaz daturik ez dut. Eta hortik aurrerakoak hipotesiak dira. Gaur erregalixto bat ematen diegu espainolei, bihar beste errefuxiatu bat bagoireren baten truke... baina noraino segi dezakete hola?

A.— Beste gai bat sarritan aipatzen dena: euskaldunon arteko enfrontamentu zibila. Azken aldiz asko izendatu zen Imanol Lartzabal kantariaren kasuan.

I.G.— Imanolen kasua ez dakit zein puntutaraino egon den Madrildo Barne Ministaritzatik prestatua, hainbat lotura ikusi da baina zein puntutaraino ez dakit. Agerian geratu da astakeria izugarria egin dutela, lehen aipatu dizudan eraso urratsez urrats egiten bait da.

A.— García de Andoain ertzainburuarena ere ez da ahaztu behar.

**“Historian
begiratu eta beti aurkituko
duzue botere errealekin,
botere espainolekin,
aliaturen bat Euskal
Herrian”**

I.G.— Ez dut zalantza izpirik ere ikusten horretan: Askapen Mugimenduaren barnean su horretara egurrik ez dugu guk botako. Baina honetan poetarengana joango nintzateke zera esateko: gerrarik egin ez duena ez dadila bake kontutan sar. Enfrentamentu zibila... ez dut uste gauzak horretan daudenik. Gauzak egunetik egunera mugitzen dira eta duintasunezko bakea posible da, eta beraz enfrontamentu zibila oso irrealia iruditzen zait.

Gu isolatzeko saioak hor daude, eta Ajouria-Eneako hitzarmena ez dut ahazten. Baina gurdia nork darama hemen? Gure Herriaren erreindikazioak nork ateratzen ditu kalera? Besteak, nola edo hala, formula batzuekin edo besteekin, interesak tartean direla, baina gurdi horretara datoz. Nazio Askapen Mugimendua beti oso garbi eduki du nor duen kontrarioa eta nor etsaia. Eta norbait ibili baldin bada oso zuhur horretan Mugimendua izan da. Badirudi patuak horretara eraman gaituela: guk izan behar dugula erantzule bai gure ekin-tzetaz eta bai besteenetaz.

A.— Espetxean zinen bitartean hil zen Txomin Iturbe.

I.G.— Zer esango dut Txominez... Adiskide handia nuela eta kristoren mina eman zidala bera hiltzeak. Horrez gain, nahiago dut Txomin ene baitan atxikitzea. Txomin Iturbe... Uste dut Lasarte bertsolariak behin bota zuela definizio bat: «Gizon bat eguneroko gauza txikiak handi egiten zekiena». Hori zen Txomin.

A.— Urteak daramatza Mamarruk bere sorterritik ihesi joanik eta seguru batzuek pizti berezi bati bezala begiratu diotela eta beste askok berrik galdetuko lioketela ea noiz pentsatzen duen itzultzea.

I.G.— Herriak gure jokabidea konprenitzen ote duen galdetzen didazu, eta ikusi bazenu espetxeko atarian ene zain zegoen jendea ohartuko zinen herriaren zati handi batek behintzat ontzat emana duela gure bidea. Itzultzeko egunaz, berriz, neri baino espetxeetan dauden presoek galdetu beharko zenieke. Ni azken finean urrezko preso degen batean naukate hemen, preso dauden hainbat eta hainbatek gustora hartuko lukete nik hemen daukadan bizimodua. Haiak etxeratzen direnean pentsatuko dut mailetak egiten noiz eta nola hasi.

PELLO ZUBIRIA
XABIER LEKUONA